

AFGANISTANEN AURKAKO ERASOA

Erredakzioa | DONOSTIA

Pervez Musharraf Pakistango lehendakariak premiak bilera egin zuen atzo, barne segurtasunaren inguruko hainbat gai eztabaidatzeko. Musharraf lehendakariak deitutako bileran, Islamabadeko gobernuak Barne ministroak, Armadako goi karguek eta Pakistango eskualdeetako gobernadoreek hartu zuten parte.

Pakistango Gobernuak ordezkariek helburu garbi batekin ekin zioten bilerari: azken egunotan EEBBeko Gobernuak Afganistanen aurka hasitako erasoak salatzeke talde islamikoek Pakistango hiri nagusietan hasitako protestak eteteko neurriak aztertzea.

Musharrafek bilera egin du EEBBen aurkako protestak eteteko neurriak aztertzeko

Pakistango Defentsa Kontseilua erakunde islamistak EEBBen jokamoldearen aurkako manifestazio jendetsuetara deitu du gaurko

Bitartean, Pakistango Defentsa Kontseilua erakunde islamistak EEBBen aurkako manifestazioetara deitu du gaurko. Protesta ekintza jendetsuenak Kuetta eta Peshawar hirietan espero dira, bertan talde islami-

koek jarraitzaile ugari baitituzte. Pakistango Gobernuak soldaduak bidali ditu jada Kuetta hirira, azken egunotako protestak ez errepikatzeke.

Osama Bin Laden irailaren 11ko atentatuen ustezko egile-

aren alde eta EEBBeko Gobernuaren aurka orain arte egin diren protesta ekintzetatik asko manifestarien eta Poliziaren arteko istiluekin amaitu dira. Islamabadeko gobernuaren arabera, manifestazio

horiek mugimendu integrista pakistandarrak Musharrafen gobernuaren aurka altxatzeko tresna dira.

Musharraf presidentea «EEBBen besoetan»

Musharrafek Washingongo gobernuari «babes osoa» eman izanak Pakistango sektore integristen haserrea piztu du. Talde horiek «EEBBen besoetara jaustea eta erregimen talibana alde batean uztea» leporatu diote Musharrafi.

Rashid Kereshi Gobernuak bozeramaileak atzo azpimarraitu zuen «uste» duela EEBBek Pakistanera bidalitako pertsonal militarren artean gerra troparik ez dagoela. Geroko albisteek hori ukatu dute.



AAMIR KUERESHI / EPA

SOLDADUAK KUETTA HIRIAN. Pakistanek soldaduak bidali ditu Kuetta hirira azken egunotako protestak ez berritzeko.



ZIA MAZHAR / AP

PROTESTAK KARACHIN. 5.000 lagun inguru bildu ziren atzo Pakistango Karachi hirian EEBBeko Gobernuak Afganistanen aurka hasitako erasoak salatzeke.

Harald Neuber | PESHAWAR

Berriemaile berezia

Lekukoek jakinarazitako informazioen arabera, Pakistango aireportuak erabiltzen ari dira EEBBeko tropak Afganistanen kontrako erasoak egiteko. *Dawn* egunkariak argitaratu duenez, Jakobabad-eko aireportuan (Sindh probintzian) gutxienez hamar gerra hegazkin eta helipoktero ikusi dituzte. Pakistango Armadako hiru batailoik eskualdea hartu dute, eta ez diote inori alde horretan sartzen uzten.

Astelehenean bertan Pakistango buru militar Pervez Musharrafek esan zuen, Islamabaden egindako prentsaurreko batean, halakorik ez zela gertatuko. Musharrafek baztertu egin zuen posibilitate hori, baina azken orduko testigantzek

bestelakorik agertu dute: EEBBak Pakistango aireportuak erabiltzen ari dira Afganistanen kontrako operazio militarrean.

Jakobabadeko eskualdea Jamiat-e-Ulema-e-Islam (JUI) alderdiaren gotorlekutzat jotzen dute. JUIko buruzagitzak borrokarako deia egin du Pakistango agintarien kontra, baldin eta Islamabadek Afganistanen kontrako erasoan EEBBei laguntzen badie. Musharrafek zuhur jokatu izan du orain arte, eta soilik babes informalari buruz mintzatu da «terrorismoa-

ren kontra borrokaz» jardun duenetan. Hala ere, zantzu asko bazeuden EEBBak Pakistanen presentzia militarra indartzen ari direla pentsatzeko. Azkenik, Islamabadek EEBBak instalakuntza militarrek erabiltzen ari direla onartu zuen atzo, lehen aldiz, ofizialki. Musharrafen gezurrak agerian geratu dira.

Iparralde-Mendebalde ize-neko probintzian, non Kuetta eta Peshawar hiriak dauden, zortzi aireportu itxiak dira jadanik. Haietako lau kontrol militarrean jarri dituzte, baita Kuetta

eta Chaman hirien arteko trenbide loturak ere.

Bitartean, alderdi islamisten eta haien jarraitzaileen aldarrea eta gogoa okerrera doaz. Albeste horiek eta EEBBen bonbek eragindako biktima zibilen ingurukoek ere asaldatu egin dituzte sektore horiek. Kuettan hiru afganistandar iheslariri tiro egin zioten poliziek asteartean, Polizia estazio bat suntsitzen saiatu zirenean. Islamabadek baimena eman die mendebaldeko probintziei «terrorismoaren kontrako legea erabiltzeko,

hori beharrezkoa den guztietan».

Peshawar eta Kuettako islamistak manifestazioak egiten ari dira igandetik. JUIk hiri nagusi guztietara eraman nahi ditu protestaldiak, eta martxa bat antolatu du Islamabad hiribururaino. Beste talde islamista batek, Sipa-e-Sahaba (SPS) alderdiak, atzo esan zuen jendea bidali duela Afganistanera, talibanekin batera borrokatzeko. Mansehra hiriko SPSko idazkari nagusi Maulana Israel Garangeek adierazi duenez, erreklutamendua muga ondoko probintzietan egiten ari dira islamistak, «bertako tribuen artean». Eskualde hori klanek kontrolatzen dute, eta Pakistango Segurtasun Indarrek apenas duten eraginik. Egun, harrobi ezin hobea da JUI eta SPS alderdi islamisten xedeentzat.

Pakistan borborrean

MUSHARRAF GEZURRETAN. EEBBak baseak erabiltzen ari direla onartu du buru militarrek, astelehenean esan zuenaz bestera